

# XARE AZOKAN PARTE HARTZEKO GIDA

- Stand alokairua
- Software, produktu eta zerbitzuen aurkezpenak
- Publizitate zerbitzua



ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



KOMUNIKABIDE BABESLEAK:



## ZER DA XARE?

XARE, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien euskarazko erabilpena sustatzeko azoka-jaialdia da.

## NORI ZUZENDUA?

Publiko orokorrari zuzendua, baina nagusiki gazteei. Sarrera bi egunez irekia eta doakoa izango da.

## NOIZ?

**Azaroaren 23 eta 24ean** (ostirala eta larunbata).

## NON?

Donostiako **Kursaal**, Balioanitzeko Hallean.

## AZOKA-JAIALDIA

Bi egunetan zehar hauek izango dira XARE Azoka-jaialdiaren osagaiak:

- **Enpresen standak:** IKTen alorrean euskara erabiltzen duten enpresa zein instituzioek euren produktu eta zerbitzuen berri eman ahal izateko standak egongo dira.
- **Hitzaldi eta mahai inguruak:** Gazteak, teknologia berriak eta euskararen erabilpenaren inguruko hitzaldi zein mahai inguruak antolatuko dira.
- **Install festa:** Hiritarrei euren ordenagailuak gerturatu eta bertan egongo diren teknikari boluntarioen laguntzarekin euskarazko softwarea instalatzeko gonbitea luzatuko diegu, bertatik atera daitezten ordenagailu zein mugikorrek ahal bezain "tuneatuta" euskaraz.
- **Software, produktu eta zerbitzuen aurkezpenak:** Erakusleek euren produktu eta zerbitzuak aurkezteko aukera edukiko dute.
- **Gazteei zuzendutako kultur eta aisialdi ekitaldi egitaraua.**

## HIZKUNTZA IRIZPIDEA

Xare IKTetan euskararen erabilera sustatzeko azoka izanik, nahitaezkoa da standetan argibideak ematen ariko diren pertsonak euskaldunak izatea eta edozein euskarrian banatzen edota erakusten den informazioa euskarazkoa izatea.

### Zergatik parte hartu XAREn?

1. Zure produktu eta zerbitzuak ezagutzera emateko.
2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien euskarazko erabilpena sustatzeko.
3. IKTen alorreko beste enpresak ezagutzeko.

## AZOKAN PARTE HARTZEKO

Hiru modu desberdinetan har dezakezu parte Xare azoka jaialdian:

- Erakusle bezala **stand bat alokatuz**
- **Produktu/zerbitzu baten aurkezpena** eginez
- **Publizitatearen** bitartez


Azokan parte hartzeko ezinbestekoa izango da arauak betetzea. (**1. eranskina**)

## Stand alokairua

Xare azokan erakusle bezala parte hartu nahi izanez gero, honelako ezaugarriak dituzte alokatzen diren standek. Nahi adina stand aloka daiteke.

### A) Standaren ezaugarriak:

- 6m<sup>2</sup> (3x2m) kolorezko moketa feriala (M3).
- Atzekaldean aluminiozko ekturktura, U formako euste sistema batekin. 2mko zabalera eta 2,35 mko altuera.
- Errotulazioa: Stand bakoitzak atzealdea estaliko duen 2x2,35mko lona bat inprimatuta edukiko du, irudi pertsonalizatuarekin. (Erakusleak irudia antolakuntzari eman behar dio inprimatzeko kalitatearekin. Hau da, formatu bektorialean edota 150pppko bereizmenarekin).
- Koadro elektrikoa stand bakoitzean entxufe eta guzti (3000w).
- Foko bidezko argiztapena (2 foko espazio bakoitzeko).
- Muntaia eta desmuntaia barne.



### B) Stand bakoitzaren prezioa

Eskuratu standa prezio merkeago batean erreserba lehenbailehen eginez!

- Urriaren 15a arte: **450€** (600€ -%25)
- Urriaren 31a arte: **525€** (600€ -%12,5)
- Azaroaren 9a arte: **600€**

\*\*Azaroaren 10a baino lehen alokairuaren kopuru osoa ordaindu ez duten erakusleei ez zaie Standa muntatzen utziko.

### D) Altzariak (Aukeran)

Katalogoan aukeratu nahi dituzun altzariak:



**Ainara aulkia (01)**  
Urdin-grisean tapizaturiko aulki herdoilgaitza  
Prezioa: 35€



**Globus aulkia (02)**  
Aulki beltza  
Prezioa: 40€



**Taburetea (03)**  
Taburetea  
Prezioa: 45€



**Mahai altua (04)**  
0,65 ø x 1,10mh  
Prezioa: 80€



**Mahai borobila (05)**  
Base metalikoa eta grisa.  
0,80 ø x 0,70 mh  
Prezioa: 75€



**Mahai laukizuzena (06)**  
Base metalikoa eta kolore zuria. 0,60 x 0,60 x 0,70 mh  
Prezioa: 80€



**Mostradorea kristalarekin (07)**  
Goikaldean kristala eta behekaldea melanina txuria.  
Giltzarekin. 1,00 x 0,50 x 1,00 mh  
Prezioa: 215€



**Tapa kurbadun mostradorea (08)**  
Gurpilduna, tapa kurbaduna eta barruan apalarekin  
Prezioa: 175€ inpresioarekin +30€



**Eskuorrietarako altzaria (09)**  
Kurbadun erakustokia, A4 liburuxkentangat  
Prezioa: 130€



**Liburuskentangako apal gurpilduna (10)**  
Hamasei A4 liburuxkentangako gurpildun erakustokia,  
Prezioa: 200€



**Esekitokia (11)**  
Aluminiozko esekitokia  
Prezioa: 50€

### E) Norberaren materiala

Oinarritzko standa osatzeko asmoz, parte hartzaile orok bere material propioa eraman dezake. Bere ardurapean egonen da material horren zainketa zein muntaketa eta desmuntatze lana. Material propioaz XAREko antolakuntza ez da arduratuko.

### F) Alokairu baldintzak

- Standaren alokairuaren eskaera orria webgunean bete beharko da eta erreserba ez da efektiboa izango erakusleak ordainketa egin arte. Eskaera egiteko epea irailaren 1etik azaroaren 9ra bitartekoa da.
- Azokan parte hartzeko nahitaezko baldintza da IKT sektoreko enpresa izatea edota IKTen bidez zerbitzua eskaintzea euskara erabiliz.

- Behin parte hartze orria sinatuta, bezeroak konpromisoa hartuko du XARE azokako arauak betetzeko. (**1. eranskina**)
- Parte hartzea ezeztatzeak ordaindutako kantitatearen zati bat galtzea ekar dezake, jakinarazpenaren dataren arabera:
  - Hilabete bat lehenago abisatuta %100eko diru- itzultzea.
  - Aste bete baino lehenago abisatuta %50eko diru- itzultzea.
  - Azken astean edo behin azoka martxan dagoelarik abisatuta ez da diru-itzulketarik egingo.

Erakusleak hitzartutako altzariak erabili nahi ez baditu, aurretik aipatutako epeen arabera diru-itzulketak egingo dira.

### G) Muntaiaren inguruko informazio esanguratsua

Standen eta alokatutako altzariak muntatzeaz eta desmuntatzeaz XAREko antolakuntza arduratuko da.

- Erakusleek muntatzeko zein desmuntatzeko ordutegiak errespetatu beharko dituzte eta azoka irekitzen den unerako standak jada prest egon beharko du.
- Erakusleak ezingo dira Kurasaaleko erakustaretoan egon azokaren ordutegitik (11:00etatik 20:00etara) kanpo, muntatzeko (azaroaren 22an 16:00etatik 20:00etara eta azaroaren 23an 9:00etatik 11:00etara) eta desmuntatzeko (azaroaren 24an 20:00etatik 22:00etara azaroaren 25an 9:00etatik 11:00etara) aurreikusitako ordutegietan izan ezik.

### Software, produktu eta zerbitzuen aurkezpenak

XARE azokan erakusleek beren produktu edota zerbitzuen aurkezpenak egin ditzakete. Saio bakoitzak 30 minutuko iraupena edukiko du.

Aurkezpenetarako erabiliko den gelan antolakuntzak pantaila, soinua, proiektorea eta ordenagailua erraztuko ditu. Gainontzeko materiala aurkezpena egingo duen erakusleak eraman beharko du.

PREZIOA: 100€

### Publizitate zerbitzua

Erakusleak honako euskarrietan iragar daitezke:

- XARE web orrian bannerra: 300€.
- XARE newsletterretan: 150€ bidalketa bakoitzeko.
- Azoka egunetan banatuko den gida-plano orokorrean: 150€ modulo bakoitzeko.

### ZERBITZU OROKORRAK

1.- Promozio elementuetan agerpena:

- Azokaren newsletterra: Partaide guztiei e-mail bidez bidaliko zaizkien newsletterretan erakusleen zerrenda eta azokaren inguruko azken albisteak jakinaraziko dira.
- Xare.eu webguneko katalogo ofiziala. Bertan erakusleen produktu eta zerbitzuen berri emango da.
- Bisitarien gida: Azokara hurbiltzen diren bisitariei (publikoa, komunikabideak, erakusleak...) dohainik banatuko zaie gida eta plano orokorrean.

2.- Standa kontratatzeak bere gain hartzen du elektrizitatearen kontratazioa.

### ORDAINKETARAKO DATUAK

1.- Kontu korrante zenbakia: 2101 0969 46 0128004413

Banketxea: Kutxa

Titularra: Komunikazioa Eragin, S.L.

Ordainketaren kontzeptuan zergatia azaldu.

2.- VISA bidez Xare.eu webgunean

## PARTE HARTZAILEAREN AGENDA

Zer egin?	Noiz?	Non?
<b>Kontratua eta ordainketa</b>		
Parte hartze eskaera	Irailaren 1etik azaroaren 9ra	Parte hartze eskaera Xare.eu webgunean bete behar da
Ordainketaren azken eguna	Azaroaren 9a	KUTXA: 2101 0969 46 0128004413
Online katalogoan datuak sartzea	Irailaren 1etik azaroaren 9ra	Xare.eu webgunean erakusleen gunean
Espazioen banaketa	Azaroaren 15ean	E-mailez jakinaraziko da eta Xare.eu webgunean argitaratuko da
<b>Parte hartzea, ezagutaraztea eta komunikatzea</b>		
Egitarauaren barruan zerbitzu edo produktu aurkezpenak eskatzeko epea	Irailaren 1etik azaroaren 9ra	Xare.eu webgunean erakusleen gunean
Gonbidapenak: Azokaren berri eman bezero propioei. DOHAKO SARRERA	Irailaren 1etik azaroaren 22ra	Erakusle bakoitzak bere baliabide propioak erabiliz
Zerbitzu edo eskaintza bereziak XARE azokan standera hurbiltzen den publikoarentzat	Azoka datetan	Erakusle bakoitzak bere standean
<b>Standen muntaketa eta ordutegiak</b>		
Standen eta altzarien banaketa	Azaroaren 22an 16:00tan	Kursaal, Donostia. Balioanitzeko Halla
Erakusleek beren materialaren muntaketa standetan	Azaroaren 22an 16:00etatik 20:00etara Azaroaren 23an 9:00etatik 11:00etara	
Azokaren irekiera	Azaroaren 23an 11:00etan	
XARE azokaren ordutegia	Azaroaren 23tik 24ra 11:00etatik 20:00etara	
Standen eta materialen desmuntatze eta bilketa	Azaroaren 24an 20:00etatik 22:00etara Azaroaren 25an 9:00etatik 11:00etara	

### KONTAKTUA

Orokorra	info@xare.eu	943 444 422
Koordinazioa	koordinazioa@xare.eu	943 444 422
Egitaraua	egitaraua@xare.eu	943 444 422
Komunikazioa	komunikazioa@xare.eu	943 444 422
Standak	stand@xare.eu	948 121 976

**1. PARTE HARTZE ARAUAK ONARTZEA**

Parte hartzaile orok eskaera orria bete eta sinatzearekin batera XARE azokaren arauak betetzeko konpromisoa hartzen du.

**2. PARTE HARTZEKO BALDINTZA**

Azokan parte hartzeko nahitaezko baldintza da IKT sektoreko enpresa izatea edota IKTen bidez zerbitzua eskaintzea euskara erabiliz.

**3. PARTE HARTZEA ONARTZEA**

Antolatzaileen esku geratzen da parte hartzaileei baiezkoa edota ezezkoa ematea.

**4. ESPAZIOAREN ESKAERA**

Eskaera orria webgunean bete beharko da eta erreserba ez da efektiboa izango erakusleak ordainketa egin arte.

**5. ORDAINKETA**

Antolakuntzak bidalitako faktura orori BEZ gehitu beharko zaio.

**6. ORDAINKETA MODUA**

Ordainketa kontu korrante bidez egingo da honako kontu korrante zenbakira KUTXA: 2101 0969 46 0128004413 eta kantitate osoa ordainketa bakarrean burutu beharko da.

- Urriaren 15a lehenago ordainduta: % 25eko deskontua.
- Urriaren 31a ordainduta: % 12,5eko deskontua.

**7. ESPAZIOEN BANAKETA**

Standen kokapena antolakuntzak erabakiko du. Azoka sekzioka ordenatuko da, hau da, erakusleen standak zonalde desberdinetan banatuko dira, haien jardueraren arabera.

**8. PARTE HARTZEAREN EZEZTATZEA**

Parte hartzea ezeztatzeak ordaindutako kantitatearen zati bat galtzea ekar dezake, jakinarazpenaren dataren arabera:

Hilabete bat lehenago abisatuta	%100eko diru- itzultzea
Aste bete baino lehenago abisatuta	%50eko diru- itzultzea
Azken astean edo behin azoka martxan dagoelarik abisatuta	Ez da diru-itzulketarik egingo

**9. PARTE HARTZAILEAREN DATUAK**

XAREko antolakuntzak parte hartzailearen datuak erabili ditzake azokaren webgune, online katalogo eta euskarri desberdinetan erabiltzeko.

Antolakuntzak enpresaren datuak soilik erabiliko ditu XARE azokarekin erlazionatutako gaietan.

Erakusleak XARE antolatzaileei baimentzen die erakusgai izanen diren produktuen irudien erreprodukzioa azokaren promozio materialetan.

**10. ORDUTEGIAK**

Parte hartzaileek XARE azokaren ordutegiak errespetatu beharko dituzte erakusketarako, baita muntatze edota desmuntatze lanetarako ere.

**11. SOINUA**

Debekaturik dago gainontzeko erakusleei traba egingo dien soinua egitea, hala nola 60 dezibelioetatik igarotzea.

**12. AZOKARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEA**

Xare IKTetan euskararen erabilera sustatzeko azoka izanik, nahitaezkoa da standetan argibideak ematen ariko diren pertsonak euskaldunak izatea eta edozein euskarrian banatzen edota erakusten den informazioa euskarazkoa izatea.

**13. MERKANTZIAK**

Standetan XARE azokarekin erlazioa duten merkantziak egon daitezke soilik. Hau da, bakarrik IKTekin erlazionaturiko euskarazko produktuak.

**14. SEGURUAK**

Erakusle ororen ardurua izanen da stand bakoitzean egonen diren material propioen gaineko segurua kontratatzea, antolakuntza ez da haien kalteez arduratuko.

**15. JABETZA INDUSTRIALA**

Erakusleek ezingo dute beren standetan inongo produktu edota zerbitzurik eskaini beste enpresa baten produktua imitatuz eta besteen jabetza industrialia lesionatuz.

**16. ERAKUSLEEN BETEBEHARRAK**

Erakuslea behartuta egonen da:

- Standa garbi mantentzera.
- Azokaren egunetan standa irekita edukitzera ordutegi ofizialaren baitan.
- Espazioa jasotako moduan uztera azoka amaitutakoan.
- Standean euskarazko zerbitzua eman eta informazioa edozein euskarritan euskaraz eskaini edo banatzera.

**17. AZOKAREN EGUN ALDAKETA, ATZERAPENA EDOTA BERTAN BEHERA UZTEA:**

- XAREko antolakuntzak azokaren data aldatu edota bertan behera uzten badu, parte hartzaileari dirua bere osotasunean bueltatuko zaio.
- Dirua itzuliko da, beti ere, azokaren deuseztatzea ez bada ustekabeko kausa baten poderioz sortzen (grebak, uraren edota elektrizitatearen mozketak...).
- Ustekabeko kausa baten aurrean baldin bagaude, antolakuntzak azokaren data alda dezake. Kasu horretan, data berrian parte ez hartzea erabakitzen duten erakusleek %75eko diru itzulketa jasoko lukete, beti ere, data berrian parte ez hartzeko erabakia antolakuntzari jakinaraziz gero honek data aldaketa iragarri osteko 15 egun naturaleko epe barruan.
- Ustekabeko kausa behin azoka hasita sortzen bada, ez da dirurik bueltatuko.